1.º URTEA

IBAIZABAL

15ª GUEIA

IGANDEETAN IRTETZEN DA | BIZKAIKO ETA GUIPUZKOAKO EUSKERAZ EGUINA | DOMEKETAN URTETEN DAU

1902-ko Jorrailla-ren 13ª

Euskalerrian, iru peseta urtean.—Erdalerrian, sei peseta urtean.
Guei Bakocha, Chakur chiki bat.

1902-ko Jorrailla-ren 13ª

IBAIZABAL-en Echea: Bilbon—Dendari Kalean (Calle de la Tendería) 19—Jaun José Astuy-renean.
Eskutitz edo karta guztiak zuzendu beitez artezkariaren echera: Tívoli, letra B, 2.º derecha.

JAUN USAIÑEKOAI

Gure adiskide maite batek azaldu euskun, egun guichi dala, guertaera au. Bilboko senar-emazte batzuk eiebilzan iñude-antzu baten billa, euren ume batentzako; ta euskalduna gura eieben, umechuari euskera eguiñaz euskerea erakutsi eguion.

Aguertu eijaken nozbait emakuma bat, euren adiskide batzuen ezaugaria ekarrela, ta itandu eieutseen (erderaz, bada euskerarik eztakie senar-emazteak):

—Eta ¿euskeraz badakizu?

—Ez jauna, eztakit—erantzun eieban emakuma arek berealasse.

—Orduan etzara gauza gure echerako. Euskalduna gura dogu guk. .

—¡Ai! nik uste izan dot obe zala ez jakitea. Badakit, bai—eta euskeraz berbetan asi jaken.

—Bada, orain len baiño charrago. Gurerako euskerea oso maite dabena izan dear dau, umeari gustorik andienaz eta arduraz erakutsi daguion; eta zuk eztozu maite euskerea, ukatu eguin dozu-ta.

Emakuma buru ta biotz bagako ori ezta ez zoricharrez inchaur bakarra gure artean. Entzunda daukadaz Euskalerrian: «nik erderaz ondo baneki eneuke euskerarik eguingo;» «besterik ezean diardugu euskeraz berba eguiten guk,» eta beste onetariko esakerak. ¿Lotsagarria dala, ta auza, munduko iñungo Erritan eztala entzuten orretariko doillorkeririk? Eguia da, ta gogoratuteak bakarrik arpeguia gorritu, biotza mindu ta gogoa atsakabetu eraguiten dau.

Bai, min eguiten dabe esakera onek; baiña biotza guiltza-pean sartu, ta buruaz edo adimentuaz bakarrik beguiratu daiogun gauzeari.....ta ezkara arrituko; bidez bidezkoa erechiko deutsagu euskaldun askok (gueienak ez, Jainkoari ezkerrak) euskereaganako dauken oztasunari.

¿Zelan izango da ba, irakatsi bear dabeenak ezpadabe irakasten? ¿Zer eguingo dau, eta zer uste izango dau nekezaleak, bera baiño gorago guizartean dagozanai euskerarik sekulan entzuten ezpadeutse? Jakiña; esango dau beretzat, «ezer eztakigunok bakarrik jarabilguk euskerea, bapere dan guizonak echok eguiten.»

Orregaitik, idunekoa edo gorbetea ta kapelea ta *lustre*-dun oiñetakoak eta sur-peko *eskobillak* daroazanari, euskaldunen antzik be ezteutse artuten, Bilbo inguruetan beinzat, eta errazoe andiaz, iñoz euskerarik echakeelako entzuten. Onetariko guizon-pilloak ikusten dira Bilbon da beste leku askotan, guztiak euskaldunak izan da erderaz diarduela. Ta baldin euren autua edo konbersaziñoa izango da euskerearen ganean, eta esango dabe «bai, guizonak, euskerea galduaz doa; damu izateko da; ¡ainbeste gaztelar sartu jaku-ta!»

Ez, eztabe gaztelarrak galtzen euskerea; zeuek galtzen dozue, bazter batera botaten dozuelako ardura barik, eta erakusmen edo ejenplu charra emoten deutsazuelako beste euskaldunai. Beti gabiz emen gaztelarrak gora ta gaztelarrak bera; gueuk isten badeutsagu euskereari, ¿ze erru dauke arek? Baiña orisse da guizonaren izakerea; norberak euki errua, ta beste baten bizkarrera bota.

Jaun usaiñekoak alkarren artean euskeraz berbetan ikusteak, nekezaleai emoten deutsan poza ezta erraz adierazotekoa. Arpeguia irribarrez argui argui dabela, bere biotzeko atseguiña beguietan aguiri dabela, pozarren egoten da beguira, ta gueienetan berba bat edo bi eurakaz eguin barik eztau alde eguiten.

Orressek, jaun usaiñekoak euskerara biurtu al balitzaz, gure euskera au maite izango balebe, euskerea al dabeen guztian oituko balebe, ziur gagoz elitzakezala aurkituko gure Errian len aitatu doguzan lotsagarrikeriak.

BLOA.

IARITZ BEDEINKATUA!

Jaungoikoak aritz bat
zuben bedeinkatu
eta chit lur sendoan
Guernikan landatu;
euskaldunak zezaten
biotzez maitatu
eta beren frutuak
sekulan ez galdu.

—

Ala, euskaldun zarrak
Jaungoikozko lanak,
gorde izan dituzte
kontu aundiz danak;
kunplitu ere ziran
Beraren esanak
gorderik ondo frutu
aritz ark emanak

—

Etsaia nola beti
dabillen tranpian,
bota nai izan zuben
jorikan guerrían;
¡utsi ere bai zuben
iya erorian
oker oker eguiña
estura larrian!

—

Bañan euskaldun onak
beragana joanik,
eta zeuzkan zauriak
kontuz sendaturik,
jaso zuten guztien
artean lurretik
zeñak sendo loturik
jarri zuten zutik.

—

Oraiñ ere etsaiak
nairik lurperatu,
ekiñ diote, bañan
ez da lurreratu,
eguin diotena da
indarrez okertu,
bañan zaiñ denak zaizka
osorik guelditu.

—

¿Zer esango luteke
lengo guizon zarrak
lurreratu eskero
aritzen adarrak?
¡ez! eatzi zaizkagun
denok atzaparrak
sendatzeko gorputzak
dauzkan atzamarrak!

—

Ea, gazteak oraiñ
len zarrak bezela
baturik jaso zagun
chit gora arbola
eman zagun sendagai
daukagun odola,
etsaiak ez dezaten
muguitu iñola.

—

Sendatzen badiogu
dadukan zauria,
Jaunak bigalduko du
guretzat saria;
izan dedilla argui
bat guztiz aundia,
berak estali dezan
euskaldun erria.

JOSÉ ARTOLA.

BASERRITARRENTZAT

Aurten aurrerachu etorri da kanpoa, esan gura dogu, kimu lora orriak goizetik aguertu jakezala landarai, neguaren azken-aldea bigun samarra izan dalako. Gagozan ill onetan ezta zer asko fiau leiaz edo izotzaz; sarritan daki jorraillak edo aprillak, usterik guichien daukagunean, leicho bat botatea... ta ¡agur orduan lora ta kimu samurrak!

Gueienez maastiai ukutu gaiztoak eguiten deutsoz jorrailleko leiak. ¿Ezetedago biderik masstiak zelan edo alan otzaren kalteetatik gordeteko? Donibane Lohitzungo gure anai *Eskualduna*-n dakusgu zerbait onen ganean, da gure euskerara biurtzen dogu.

***

Bide-nagusien ondoan dagozan maastiak artu dabezanean leiak, gauza bat izan da oartua; bidearen urreko matsak nekez leitu direala, ta erraz maasti barru aldekoak. Gogoratuten asi zirean zergaitik etezan ori, ta erechi eutsen bidetik jaguiriko autsak estalduten ebazala bide-ondoko mats-kimuak, eta auts orrek gordeten ebazala leiagandik. Erechi au ziurtuteko, barru aldeko mats erreskada batsui bota eutsen autsa, ta ikusi eben leiak ezeutsela kalterik eguin beste guztiak erreta ichi ebazala.

Autsak modu bitara gordeten dau matsaren adarchua: 1.º estalki batek leguez, bere beroari kanpora joaten isten ezteutsalako; guri, soiñekoak eguiten deuskuen moduan. Soiñekoak ezkaitu berotzen, gure beroari kanporako bidea galerazoten deutso; besterik ez 2.ª Ezotasun edo humedade gueieguia kenduten deutsalako; gauza jakiña da zeinbat eta legorrago edo sikuago dagoan gauza bat ainbat nekezago leituten dala.

***

Au olan dala, ¿zein auts ezarriko jake? Batzuk igueltsua oitu dabe, beste batzuk errautsa edo sukaldeko autsa. Arek obeto kenduten dau ezotasuna, onek obeto oratuten dau. Euri batek arin eroaten dau igueltsua, ta barriro bota bear jake. Badira igueltsua ta errautsa erdizka

emoten deutseenak; baita badagoz iru partetik bi errautsa ta bat azufrea ipinten dabeenak be. Azufre onegaz, autsak leiagandik ez eze, gorriñagandik be gordeten dau, guztiak dakienez; ta beraz, onetara gauza baten, osabide bi eguiten dira.

Gauza erraza ta merkea da ba, leiari aurre emotea; ta ezta beste tresnarik bear azufrea zabalduteko eukiten direan auspoak baiño.

Berbera eguin leike frutadun arbolakaz, lorean dagozanean da otzak artuko etedabezan bildurrik euki ezkero.

ZUMELAGA

ROSARIO ARTOLA

Ote da beste zoragarririk
Jaio danikan munduan
Edertasunez eta birtutez
Jartzeko bere onduan?
Ta guitarchoa zeñek jotzen du
Onek jo oi dun moduan?
Nik gaur eztakit ots gosso ura
Nondik ateratzen duan.

—

Eziñ nezake damacho orren
Tiñtasun dena azaldu,
Ta aitortzen det nere zentzua
Orrechek dubela galdu;
Urrien truka fiñtasun ori
Nai izanagatik saldu,
Au erosteko diña dirurik
Rochill-ek ere bai aldu....?

—

Onen bersoak eta ipuiak
Naukate beti zoratzen
Dama izanik gure izkuntza
¡Zer asko duben maitatzen!
Onen izena paperen batek
Diran aguro aitatzen,
Nere biotza triste badago
Pozkidazez da betetzen.

—

Iñoiz egon naiz irakurritzen
Zure lau gosso ta fiñak,
Biotz chulotik irtetakoak
Euskera-ganako griñak;
Baziruditen denak zirala
Aingueruchuak eguiñak,
Eta demboraz zu sarituko
Zaitu zeruko erreguiñak.

—

Chikitandikan beti zerade
Izan guraso maitía
(T'anai arrebak danak orrela
Maitatu izan baitía)
Aurrera ere orain bezela
Maitatzen bizi zaitia,
Guisa orretan ezin etorri
Iñondik zuri kaltia.

—

Issildutzera nijua emen
Ezin esanikan dena
Euskal-errian iñoiz sortu dan
Lorarikan ederrena;
Argatik orain nerekin daukat
Biotz barrenian pena,
Zure birtute zoragarriak
Esango ditut urrena.

RAMÓN GUELBENZU.

Donostían.

EUSKALDUN ERDALZALEA

IJITO BATEN TESTAMENTUA ETA KONSEJUAK

I

—¡Ai, Maissepa! Gaizki nago; testamentua eguiñ bear det; ekarri ezazu Eskribaua.

—¿Zertarako? ¿Zer dezu testamentuan usteko?

—Benturaz berak utziko dit neri.

—¿Nork? Domeniñok. (1)

—Diot ba... benturaz...

—¿Ez aldakizu zer esaten zuen Erramona zarrak?

—¿Zer esaten zuen ba?

—Domeniño, bei antzua bezela zala.

—¡Ai, Massepa, Maissepa! beia jeisten eztakienarentzat, bei guziak dira antzuak. Datorrela datorrela lenbaitlen Eskribaua.

—Ondo da... aizak mutiko; ua eskribauagana eta esaiok etorri dedilla agudo.

—Tan... tan... tan...

—¿Nor da or? ¿Zer nai dek mutill?

—¿Bedori da Eskribaua?

—Bai.

—Betor ba agudo testamentu bat eguitera kaballero bategana.

—Ago pusska batian, eta beriala nauk or.

Kaballeroaren izena aditzean, bereala apainduta abiatu zan Eskribaua, mutikoa aurrean guiari zuela; baño eguia esateko, arlotechoa iritzi zion echeari, kaballero batena izateko: estalpe nolabaiteko bat, zuma batzuek, saski bat edo beste, lapiko bat sutan, an bazter batean eta mandoaska batean, manta batzuekiñ bildurik, guizon beltz andi bat.

—¿Badator Eskribau Jauna?

—Bai, banator ba.

—Ongui etorria izan dedilla Jauna eche santu onetara.

—Eskerrik asko.

—Testamentua eguiñ nai nuke ta esango diot itz guchitan nere deseoa; zaldi bat, asto bat eta aisturra (2) pare bat dira nik dedan guzia: zaldia emaztearentzat, astoa semearentzat, eta aisturrak bedorrentzat, testamentua eguite-aldera.

—Zertako ditut nik aisturrak.

—Ara Jauna; beatz-azkalak moztu ta orrelako lanetarako oso politak ditu.

—Ba eztitut bear.

—¿Zenbat nai du ba bedorren nekeagatik?

—Amar peseta.

—Estet ba ardit bat ere nerekiñ, baño artzeko batzuek baditut.

—Onak badira artzeko oiek....

—Bai Jauna bai; besterik ezpada, berotzeko bada ere...

—¿Nun dauzkatzu?

—Ataunen.

—¡Otra!... De Herodes á Pilatos...

—Y de Eskribaus á Pariseos... ¿é?

—Tira ba, tira; guazen aurrera.

—Ara ba Jauna; baitut artzeko berreuncho bat...

—¿Zer berreun?

—Berreun... estakit ba bedorrek naiko ote dituan.

—Guizona: chanponak izanta ere, berreunera ezkero, zerbait izango da.

—Esangoiotba Jauna arguiro. Ataunen dauzkat artzeko berreun palo. Bedorrek artu nai balitu.....

—¿Nik? ¿Zer dala ta?

—Diot ba... nai balitu....

—¿Zergatik eztituzu artu zedorrek?

—Lotsaz; orra esan eguia; beste erri baten izan balitz ere..... baño ¡Ataunen, ainbeste senide dauzkagun errian....!

—Etzaude zu kaballero charra.

—¿Kaballeroa? Bedori adiñakoa bai beñepeiñ.

—¿Nundik?

—Ara nundik. Nere denbora guzian kaballo-tratuan bizi izandu naiz, beragatik uste det ondo merezia dedala kaballero-tituloa.

—Banua berealasse emendik, baño pagatuko didazu.

—Ez bedi aserretu Jauna amar peseta gora bera. Emango diozkat konseju batzuek, ez amar baizik eun peseta baño gueiago balioko dioteenak, ondo gordetzen baditu.

—Guazen ba, guazen orretara ere.

—Betor nere ondo-ondora.

—Ona emen nun naukazun.

—Lenengo konsejua. Ez bedi beñere piatu ijitoakiñ nerau aurrengo naizala.

—Zuk esan bearrik eztet orretan.

—Beldur naiz ba, esanta ere, premian arkituko ez otedan berriz esateko.

—Ia beste konseju bat.

—Bigarrena. Ijitoak ezer ostutzen badiote, ez joan aien ondoren.

—¿Zergatik ez?

—Ostua ez du eskuratuko, eta gañera kastatu egingo du.

(Emen oso issilik eman zizkion beste konseju batzuek ere bost edo sei miñutuan; baño.eztakigu zer. Guero galdetu zion Eskribauak).

—¿Beste konsejurik badezu?

—Ez Jauna. Gorde bitza ondo oiek, eta asko ditu oraingo.

—Agur ba.

—Ario, ondo bijua.

II

Echeratu zan Escribaua, eta oartu zan urresko erlojua palta zitzaiola; eta suak arturik, juan zan kaballeroaren Palaziora, eta itzik eguiñ gabe, asi zan kaballeroaren oia errekistatzen; onetarako makurtzian, bere arpeguia jarri zitzaion kaballeroarenaren gañian, baño puskabat gorasseago, eta gorbetarekiñ jotzen zuan kaballeroaren aoa. Gorbatan zeukan urrezko orratz eder bat, eta kaballeroak ortzakin oratu oso kurioso, eta atera zión orratz ura miñik eman gabe. Escribau Jauna echeratu zan len baño ere charrago.

III

Kaballeroak ikusi zion Ecribauari eraztun eder bat beatz baten, eta zai zegoan berriz aguertuko ote zan urasse eskuetaratzeko deseoz, baño etzan gueiago aguertu; bada damutan omen zeguan kaballeroaren konsejuak beranducho ikasi zitualako. Kaballeroa berriz penaturik, berak nai baño len ikasi zitualako.

IV

Liburu azal guziz ederdun bat agueri zan Eskribauaren echean, gañean izkira edo letra ederretan zeukana: Ijito baten testamentu eta konsejuak.

Lenbiziko orrialdian berriz zeukan eskribiturik:

Ijitoaz piatzen
Diraden gajuak,
Eramango dituzte
Petardo bapuak,
Baten testamentua
Eta konsejuak
Kosta zaizkit urrezko
Orratz-erlojuak.

P. M.

1902-ko., Jorraillaren 6 an.

(1) Don Benignok.

(2) Aisturrak = Guraizak = Artazissak = (erderaz = tijeras)

NESKAZARRAK

Empleatzen ez bada gazte dala neska pasa bearko ditu makiña bat kezka burutik zoraturik senar-gairik ez ta ¡orra azkenerako neskazarren festa!

Arpegui zimur, begui zorrotzak
besterenak ortz ta aguiñak,
ezurrak gogor eta gañera
ankak ez daude ariñak,
ille churia, naiz beltzatutzen
eguin naiko aleguiñak,
askok dituzten muño ederrak
dirade bestek eguiñak.

Gaztetasuna pasatzen dute
zartzaroko esperantzan,
guero oiekin zer guertatzen dan
orra emen garbi esan,
senargairikan ez dala etsita
beti dabiltza elizan
gure Jainkoak triste oientzat
zerbait kupida izan dezan.

Penarik aski izaten dute
denbora joan ondorean,
baiña aleguiña eguiten dute
desenkusatu (1) naiean,
galdetu ezkero zergatik dauden
orren bizia tristean,
diote «eskondu nai baguenuke
ez gaude baten faltean»

Bat bakarrikan ez det bereizten
berdiñak dirade denak,
nai duten ura ez eguitean
biurtzen dira zitalak,
ondo bizitzen ez diote usten
beren ernegazio charrak,
orlakuakin ezkondu ezkero
¡zer inpernua senarrak!

Ez dira erraz esagututzen
izketan ai diranean
lengo kontuak aundiak dira
beti oien mingañean,
jostaketa bat ezin sufritu
ain daude umore charrean
norbaitek ezer esaten badu
or dijoaz marmarrean.

(1) Desenkusatu: disimular.

Orien jabe eguiten dana
dago chit errukigarri
bear dan pake ordez echean
guerra izango da sarri,
bere erara beti utsi bear
pakea nai badu jarri
bestela arrazoi charrak oso maiz
entzungo ditu ugari.

Itz legunakin ta par-irrian
kanpoan dira ibiltzen,
oien barrenak nolatan dauden
ez da erraz esagutzen,
azpertu eta diradenean
echera allegatutzen
arrazoi gabe okasiua
nolanai dute sortutzen.

Beti elizan eta errietan
da beren ofizua,
orientzako eguiñak dira
meza ta prozeziua,
bederatziurren, errosario,
sermoi ta konfesiua,
ta elizatik atera orduko
ere murmuraziua.

Neskach mutillak kale iskiñan
izketan ari badira
murmuratuaz denbora dute
pasatzen ara beguira
esanik onla «ajolgabeak
lotsatzen ere ez dira
orrelakuak joango dira
inpernuaren erdira.»

«Mutillen batek kalean neri
itza eguingo balira
kopeta illundu ta alde eguingo
nuke beste alderdira»;
bañan alperrik orlako amesak
eguiten aritzen dira,
oiek kalean ikusi eta
¿nork beguiratu arpeguira?

Senargai asko zituzten denak
gazte denboran aukeran,
bañan etzuten sartu nai izan
Markos santuan balleran (1),
naiago zuten bizi ezkongai
gurasoen bazterrean.....
ez det sinisten ¿iñork otedu
izan bat bizi guztian?

Monja joateko gogorikan ez
ta iñor ez ezkontzeko,
bein izan zuen gazte bat bañan
etzan diña beretzako,
ondo bizi nai ez dago ori
emen penak sufritzeko,
ta sufrimentu oien bitartez
zerua irabazteko.

Ezkontzen bada pobre batekin
asko bear du ikusi,
bañan ez du nai mundu onetan
ibilli al badu itsusi,
bere denboran ikusi eta
asko du orrek ikasi,
neskazar oiek izaten dute
gordia franko malizi.

Astean iru edo lau aldiz
gueinak dira konfesatzen
nere artean amaika bider
egoten naiz ni pensatzen,
zer esatera apaizagana
orren maiz diraden joaten
ta bereala zait gogoratzen
¡mingaiña dute dantzatzen!

Elizatikan atera eta
batutzen dira elkarrekin
oriengana joan liteke
zerbait nai duena jakin
zeru ta lurrak nasten dituzte
beren mingaiñ luzeakin,
biamonean konfesatzeko
lana franko dute eguin.

Gaizki ematen dute munduan
oik bezelako loreak
¿uste dezute gazte ta edertu-
ko zaituztela aireak?
monja ezin bialdurikan
dabiltz neskacha gazteak,
askoz obea litzake berak
baleude anchen gordeak.

Neskazarretan badirade bai
ondo bizi diradenak,
baña oso gaizki oraiñ artean
bizitzen dira gueienak,
jende guztia ikaratzen du
neskazarraren izenak,
¡erne mutillak! ez bada ezkondu
naiz izan zerbait dutenak.

Neskazarraren azken bizia
da oso penagarria
atetik ate askok eskean
pasatzen dute erria
iñork ez ditu ikusi nai ta
¡gaiso oien misseria!...
¡neskach gasteak, San Antoniori
jaso lenbailen beguia!

ENRIKE ELIZECHEA.

(1) Ballera: cofradía ó gremio.

AZALDEA

Josepa Antonik Dominikari:
«¿aditu dezu orlakorikan?
bertso batzuek jarri omen ditu
Enrikek guregatikan
gauza aundiak esanaz noski
neskazarraren-gatikan.
Ia joanian egon danean
miñez mundu ontatikan
kupiturikan guizarajoaz
ta biotzak jasorikan
eska diogu gure Jaunari
biotzaren erditikan
komeni bazan atera zezala
aiñ tranze estutikan
ta Jaungoikoak beti bezela
otoichoak entzunikan
libratu du ta gaur arkitzen da
osasunez beterikan;
entzun ta guero guelditua naiz
ni oso arriturikan
ez nuen uste aditutzia
nik orrelako gauzikan.
¡Ari zaitia erregututzen
orrelakuagatikan....!
sendatu eta orra pagua
gure otoitzangatikan.
Konbersazio au nik entzutian
kale kantoi batetikan
esango diot: «Jossepa Antoni
ni jaio ezkeroztikan
ez det sekulan iñoiz ere esan
guezurcho bat bakarrikan
konfesatutzen dizut chit gogoz
bada biotz biotzetikan
ez detala izan iñorengatik
far eguiteko asmorikan
¡Ez alajaña! ¿Nik deus esan
neskazarrarengatikan?....
maitechu ditut zar eta gazte
chit gazte gaztetandikan
ta maite naute ni ere denak
esan gabe guezurrikan.
—Ala da baña ez gure kontra
jarri bada besterikan.
—¿Nai dezu jakin zergatik dauden
bertso aiek jarririkan?
ez pensatu ez neskazarrak
lotsatutzeagatikan,
baizik Ibaizabal-en sari chiki bat
irabazteagatikan.

IZKIRIMIRIAK

Marchuaren goiz batez
zan obiratzea (1)
eta gorpuaren zai
zegoen kochea;
inguruan mutill bat
beguira zegoen
ikustiagatik noiz
gorpua zekarten;
ontan beste gazte bat
zitzaion aldera,
eta onela eguin
zion galdeera,
(eskuarekin ¡zanba!

(1) Obiratzea—lurperatutea.

me eguin det, eta damurik eztaukat. Orain, nere lekuan, ¿nork naiko ez luke, al dala eragoztea ezkontza au, nere utseguiña gabetandik aguertu? (Norbaitzuk datoz; ¿zein ote dira?) *(ate ondora joaten da)* Berak, neska-mutillak, asko uste ezpadute ere, anai-arrebak. Gorde nadiñ nere guelachoan; guerta dedilla Jaungoikoak nai duena. *(Sartzen da guelan).*

AMABIGARREN IRUDIA

KARMEN ETA JOSE

Jose. —¿Nork esan dizkitzu kontu oiek?
Karmen. —Zure aitaren lagun Pachik. Bañan oiek eztira ezer esateko dauzkatenentzat.
Jose. —Orainchen ari naiz lenaz gañera igartzen Pachik zer dakarkien. Eguia esan nazazu: ¿Pachiren semearekin bai aldezu edo izan aldezu beñere asmorik ezkontzeko?
Karmen. —¿Arrekin nik? Ezta bururatu ere orrelako asmorik nere bizian.
Jose. —¿Nai dezu noski nerekin ezkondu?
Karmen. *(Negarrez, musu-zapia beguietara*

eramanaz).—¿Zer da galdera ori, biotz nereko Josecho? Sinizta nazazu, naitasunik ezpazirazuke ere, mundua mundu dan artean etziñuzkeala aztuko.
Jose. Asko da. *(Aitaren guelaruntz joan da deitzen dio):* Aita, mesedez betor.

AMAIRUGARREN IRUDIA

LENGOAK ETA CHOMIN

Chomin —¿Zer nai zenduen, nere semea?
Jose —Zer nai nukean jakin gabez eztago. Oraindaño sortu nai izan dituzten azpikeri eta eragozpenak, asko dira. Gurasoa dan aldetik galdetu nai nioke, emango al diran ala ez Karmenekin ezkontzeko baimena.
Chomin (Aitzenengo aldiz saia nadiñ.) *(Negarrez.)* ¡Aussen da, au, zarzaro errukarria! iñorcho ere ezta nigatik kupitzen. Biotzaren erdi-erditik maite zaitudan seme nerea; arren, aitzenengo aldian erregutzen dizut nere borondate billa bazabiltza, etzaitez ezkondu oraindik beintzat, bestela egun guchi barru lurperatua naiz.
Jose ¡Eztauka iñork alajañetan zarzaro

joaz garrondoa)
—Aizak, Jose, zein ill da
—¿Zein ill dan?... ¡Marchua!

PEPE ARTOLA.

Atzo bat eta arakiña

—Jose Ignaziocho, arakin berria
Miñ bague ill be-ar dirazu cherria (2)
—¿Ikusi dezu iñor miñ bague erretzen?
Bada cherriak eztu artan miñik artzen.
—¡Enabill bada ni besteren atzean
Ez baldin badu artzen miñik illtzean!
—Ez dizu bada artuko, beintzat illtzean,
Artzen ez badizu bien bitartean.
—¿Artuko otedit bada illarterañuan?
¿Ez oteda almenik Zeruko Erreñuan?
—An izan bear luke nik uste dedanez
Baña oraiñokoan emen bean ez.
—Orduan obeki det aruntz eraman
Ea miñik bague illtzen otedan an.
—Eramaten badezu danentzat pakea,
Eraman eziñakin daukazu kaltea.
—Nolabaita ere ill zazu miñ gabe
Nekea pagatziaz eguiten naiz jabe
—Igaz, illterakoan miñ artzen zuten
Cientzia gueituaz ez dute artuko aurten
—¿Miñ bague ilko dezu? ¡ai, au nere poza!
¡¡¡Zeruan dezagula berarekin goza!!!
—Aaaameeen.

J. J. C.

Perrandok zor ziozkan Donostiako jostun bateri galtza pare bat, eta illak joan urteak joan etziozkan pagatzen.

Igande batean jostun edo dendaria zegoan bere lanteguiko atean, eta ikusi zuen Perrando zetorrela lagun birekiñ, eta igaro zan jostunaren parean agur eguiñaz.

Onek oju eguin zion orduan:
—Perrando, ¿eta galtzak?

(1) Lerro bi onetakoa jazorikoa da.

—Patrikaretan estu samar; beste gañeruntzean ederki daude, erantzun eta jarraitu zuen Perrandok aurrera.

EGAÑAK.

—Aizak, Pello, ¿sueldo aundia izango dek jardin eder orreri kontutzeagatik, e?

—Etzekiat, Praisku, seguru esateko; edo lau milla erreal diran urtean, ala errial bat lau milla urtetan.

Illzera zeramaten
Chit guizon gaizto bat
Gozakaidea eskatuaz
Barkatzeko ainbat,
Jakin zuenerako
Etzeukala bizik
Negarrez esaten du:
—Nai det sangratu nik
—¿Zergatik guizonchoa
Sangratu nai dezu?
—Progatutziagatik
Aditu nai badezu
Aditzera detanez
Askotan bizia
Eskapatzen omenda
Eguiñik sangria.

ILLARRAMENDI.

—Esagutu nuben ichu bat erozein zaldi zuri, beltz edo nabarren gaiñean eskua jarri eta esaten zuena zer kolorekoa zan
—¿Eta asmatzen zuen?
—¡Bai zera!

Erregalo on bat bezela eman zion indiano batek bere adiskide bati, loro eder berritsu bat

Andik egun guchira arkitu du bere lagun ori eta galdetu dio
—¿Ta, lorua zer modukoa?
—Zall ssamarra zegoan baña jan guenduben

V. I.

IGARKIZUNAK

I

Bata bia guizonak
Iñoiz izaten du
Iñola beregandik
Ezin duela kendu;
Ematen badiote
Bata ta *irua*
Orduan arkitzen du
Gorputzak guiroa;
Eta azkenik dezu
Nere gauza *dana*
Kasuelan jarri ta
Gustoz jaten dana

GUELBENZU

II

¿Zer jartzen da mai gañean, eman, bi puska eguin eta jaten eztana?

IRAOLA

Lengo astekoen epaiak: lenengoa, *Ill-ezkorra;* bigarrena, *Bei zarrak luzeak bizarrak.*

Igarri dabe lenengoa: Markiñako Erramonchuk; Ondarroako Markuerkiagak; Bergarako Irigoyenek; Durangoko Oreguik; Eibarko Larreategiuk; Aspeitiko José Abaliak; eta Zarauzko Praisku Arriolak modu onetan bialdu dau epaia:

Madrilgo Amezketar
Zoli ta pizkorra
Nola nai ere zera
Euskaldun jatorra
Zure igarkizunen
Epai chit gogorra
Bukatzen ez dan gauza
Au da, *Ill-ez-ko-rra.*

Bigarrenari ur'urrean ibilli jakez baiña eztau iñok igarri

Saria bazan ere
Aundia aguintzen
Etzan igarkizuna
Errazta igarten;
Bazekian Iraolak
Zer eguiten zuen
Chartelari echetik
Ez usteko irtetzen

GURE SUSKRIZIÑO-BATZAILLAK

BIZKAIAN

Bermeo, José Antonio Zabala; *Lekeitio*, Julian Zearreta; *Lemona*, Prudencio Arrien; *Plencia*, Bernardino Sierra; *Munguia*, Eustasio Bilbao; *Markina*, Felipe Eizaguirre; *Durango*, Roberto Soloaga.

GUIPUZKOAN

Donostia, Zacarias Leizaola, Loyola, 17, liburuteguia; *Azpeitia*, Salvador Bengoechea, *Bergara*, Francisco Oyanguren; *Tolosa*, Baleriano Mokoros; *Irún*, Guillermo Iguaran; *Deva*, Esteban Egaña; *Zumaya*, Pedro Ignacio Aizpurua; *Zarauz*, Jenaro Elizondo; *Oñate*, Fermin Bengoa; *Mondragon*, Antonio Kerejeta; *Eibar*, Julian Odriozola; *Renteria*, Gabriel Echebeste.

LA EDITORIAL VIZCAINA derechos moldaguintzan
Gran Via, 26 era Ledesma, 13.

errukarriagorik, berorrek bañan, erriko lau alderdietan! ¿Osasun ona eztauka Jaunari ezkerrak? ¿Eztauka eche ederra bere baratza ta guzi nai duen bañan obetogo bizi izateko? ¿Illetik-illera errenta ugariak eztitu artzen? ¿Bi seme oraindik etzaizka guelditzen?,... ¿Zer bear du gueiago?

Chomin —Bai, oiek guztiak eguiak dira, bañan ¿Amerikara zuek joan da nik nola etsi? ezta iñola ere; zuek an bizitze ezkerotz, Jaungoikoari eska nezaioke len bait len eraman nazala nere emazte zanaren ondo-ondora. ¡Aussen da, aussen, umeak azi, ta naigabeak bizi!

Jose —Ezdu bada esan bear kutizi ori ere etzaiola eguiten, ez orissen. Semea nauen bezela, ematen diot itza: ezkondu, Amerikara joan nere ondasunaz al dan bezela jabetu, eta, Jaungoikoarekin bizitza kontatuaz, ill bigarrengo biurtuko guerala guziok alkarren lagundian bizi izateko. ¿Nai du gueiago esatea?

Chomin —(Ortatik ere.... kale) *(negarrez.)* Ikusten det, seme, zure borondatea, bañan zer nai dezu esatea, nola da-

«Nai ezduenak orditu
Eta ondoren eritu,
Kontuz edaten aritu
Edari klase guzi-guziak
Espirituak baditu,
Gure zintzurrak nai ditu
Gustora sartzen baititu,
Naiz guero berak zatitu.»

Gustora edan banuen
Ondoren pagatu nuen
Deskalabratu ninduen;
Nere ondotik pasa zan batek
Galdetu ziran zer nuen,
Ea miñen bat al nueu,
Nundikan sentitzen nuen,
Planta oneu bat ja nuen.

(Jarraitzen du Chomiñek). Arduari bezin egoki nere gaiztakeriari dagozkio neurt-itzoek. Ni bai eguiaz arkitzen naizela *deskalabraturik.* Araguiaren argaltasunak, etsaiaren laguntasunarekin, eraguin azi baziran, da ustez issilik eta illunpean ibilli banintzan ere, beldur naiz prainche ez ote dan arguitaratuko. ¿Illunpetako lanak arguitarakolotsa izaten dutela? ¡baita ondo ala ere! *(Ichoguin aldi labur bat).* ¡Bañan zer! ¿Ni bakarrik ote naiz bada lurbira edo munduan era onetako lanak eguiña? Ez nuke penarik artuko orregatik, bañan ez det uste. Eskubidea neukan bezela, azi nuen beintzat nere zakel edo patrikaratik; eskola erakutsi nion; obe biarrez echera ekarri ere bai, naiz da neskametzat bezela eduki; josteko lanetan eramango dionik eztago; itz baten, kristau ta emaku-